

Noaia!!



Ostiralean Sutegin, Unai
Iturriaga eta Igor Elortza



Usurbilgo Dantza Taldea
ikasturte berria hasteko prest



sekaña ERRETEGIA

Aginaga auzoa • 20170 AGINAGA • © 943 362 773

GU TA GUTÁRAK

bertso berriak eta lagun zaharrak



www.gutegutarrak.eu kontrabaxia@leku-10-10-06-751 www-leku-10-

Kontzertua
irailak 28 ostirala
22.30h **Sutegin**

Sarrerak. Aldez aurretik erosita 10€ . (Sarrerak Txirristan eta Noaua!ko egoitzan salgai). Egunean bertan: 12€ Noaua!ko bazkideek 8€ tan erosi ahal izango dute Noaua!ko egoitzan aldez aurretik.

Laguntzaileak



Laguntzaileak



Duela 10 urte izan zen !!

“Inguruko zerga eta tasa merkeenak”

1997ko urriaren 3an plazaratu genuen erreportajeak hala zioen. Antza denez, zabor bilketan Usurbilgo udala galtzen ateratzen zen duela 10 urte. Herritarrek ordaintzen zituzten tasak ez ziren nahikoa zabor gastu guztiei aurre egiteko eta udalak osatu behar zuten.

Eskuartean dugun alean bezalaxe, duela hamar urte plazaratu genuen aldizkarian ere San Praixkuen inguruko gehigarri berezia argitaratu genuen, ordukoa, txuribeltzean eta lau orrialdekoa. Garai hartan, Udalak 850.000 pezetako diru laguntza ematen zuela aipatzen genuen, baina Aginagako festen aurrekontua bi milioi pezeta ingu-

rukua zela zioen Iñaki Ugartek, garai hartan festen komisioko kide zenak.

1997ko ale hartan, beste albiste batzuk ere bildu genituen:

Albiste laburren tartean, ezezagunek Correoseko egoitza erre egin zutela irailaren 26an.

Usurbilgo sagardogileen arteko III. Sagardo Lehiaketan, Arratzain baserriko sagardoa izan zela denetan onena.

Izerdi Patsetan atalean, Antonio Agirre eta Julian Arrozpide segalariei Hernanin egin zitzairen omenaldiaren argazkia bildu genuen.

Eta Pil-pilean atalean, errebotea zen hizpide. Zubietako Pilota Elkartek 40 fitxa zituela, inoizko handiena.



Noaúa!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaúa.com - www.noaúa.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaúa.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaúa.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaúa.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaúa.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

GU TA GUTARRAK, SUTEGIN _____ **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN _____ **6. OR.**

AUTORIK GABEKO EGUNA _____ **8. OR.**

DANTZA TALDEA, BERRIZ ERE MARTXAN _____ **10. OR.**

BERTSOLARI TXAPELKETAKO SAIOA _____ **11. OR.**

ETXEBIZITZAK AZTERGAI _____ **12. OR.**

GARAGARDOAREN ASTEBURUA _____ **14. OR.**



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IDOIA TORREGARAI

Irekiko?

Badago sukaldean bikoteko mutilarentzat oso delikatu den une bat.

Egoera: afaria egiten ari zarete eta zure neska (emazte/amorante/azukre-koxkor...) esparragoen potea irekitzen hasten da, baina nahiz eta indar guztia jarri ezin dio tapa txuriari mugimendu txikiena atera. Bigarren ahaleginik egin gabe, hortxe doa galdera (inuxentea ematen du baina ondorio larriak ekarri ditzakeena): **irekiko duzu?**

Egoera honen aurrean bi gauza gerta daitezke:

1. Maskulinitate guztiarekin potea hartu eta egiten ari zaren esfortzuaren inolako pistarik egin gabe tapak "plok" egin eta irekitzea. Kasu honetan Tarzanen antzera, oihaneko erregea sentitzen zara, eta unibertsoko indarrak zurekin daudela nabaritzen dituzu. Azken batean, arrak janaria ekarri du kobazulora. Zuen neskak, horrelako momentu zirrargarria gaintik pasa eta esparragoak platerera ateratzen ditu, besterik gabe.

2. Edo, nahiz eta indarra egin, trapua erabili, palanka

egin labadorarekin eta lepoko zaina ia lehertu beharrean zaudela nabaritu, tapak ez du zirkinik egiten eta zure neskak orduan: "emaidazu". Zuk, noski, "minutu bat" eskatzen duzu. "Emateko", berak. Ahopeka krixtonak eta bi esaten ari zaren bitartean tapa madarikatua askatzen jarraitzen duzu: "itxoin pixka bat". Azkenean, bere pazientzia amaitu eta ez dakit nola zu driblatu ondoren ditzosozko potea hartzen du. Hemen dator une delikatu zuretzat. Bi aukera:

A. Bera berrirori saiatu eta potea ez bada irekitzen "hau pegatuta dago, ezinezkoa da irekitzea!" esaten duzu eta zure auto-estima ez da oso gaizki ateratzen.

B. Baina berak potea hartu eta kasualitatez irekitzea lortzen badu... AKABO! Irribarre maltzur bat sortzen zaio aurpegian eta nahiz eta ezer ez esan, zure maskulinitate ranking-ean puntu asko jeitsi direla nabaritzen duzu.

Ez da juxtua, badakit, baina inork ez du esan mundu hau horrela denik...

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idóia Torregarai - Joxe Piñas - Unai Agirre

Ika-mika !

Zubietarrei deialdia

Kaixo zubietarrok. 2007ko maiatzean osatu zen egungo Herri Batzar berria. Hau honela, gure lanildoaren berri azaldu nahi genuke herriaren aurrean.

Datorren larunbatean, irailak 29, frontoi atzeko lokalean gauzatuko den herri bilerara gonbidatzen zaituztegu.

Arratsaldeko 18:00etan hasiko da herri bilera.

Bertan izango zareten itxaropenarekin eta Zubietak heldu zein gazte denok behar gaituelako, laster arte.

Gai zerrenda:

1.-Aurreko legealdiaren balantzea.

- 2.-Herri batzar berriaren aurkezpena.
- 3.-Erraustegiaren egungo egoera.
- 4.-Makroartzelaren gaia.
- 5.-"Zubietak Lantzen"en aurkezpena.
- 6.-Herritarren iradokizunak, eskaerak, etab...

Zubietako Herri Batzarra



Usurbil
Autoak, S.C.L.
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa,
Aitzearra kalea, 1.
20170 USURBIL
Faxa: 943 36 62 92

943 36 10 79

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA



943 371 954
UGALDEA POL.36-2-USURBIL



Lorezaintza ekologikoa

660 745 774
699 152 282

ALIPROX

Kale Nagusia 10
943 361 182
USURBIL



JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. 943 362 725



Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okandegia - Gozategia

LABE-GOXO

Gu Ta Gutarrak proiektuarekin datoz Unai Iturriaga eta Igor Elortza Sutegira

Gutako bakoitza hamaika gutarrez, hamaika nortasunez osatua dago. Irailaren 28an gure alderdi horiek guztiak aireratzera datoz Sutegira Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariak, Josu Zabala musikaria, Aitor Rubio gitarrajolea eta Xanpe baterijolea. Gu Ta Gutarrak izena du taldearen ikuskizunak. NOAUA!-k antolatutako ekitaldirako sarrerak salgai daude Txirristran eta NOAUA!n bertan.

Gu Ta Gutarrak proiektuan bertsoa eta musika dira oinarri. Aldez aurretik prestatua, baina aldi berean inprobisatua. Emanaldia hamar-hamaika bertso sorta musikatu eta uneen bertan botatako bertsoek (a capella zein musikarekin lagunduta)osatzen dute.

GU TA GUTARRAK

“Gutar parrandazalea, zintzoa edo gaiztoa, sexuala, eroa, politikoa, axolagabea... islatzen dira ikuskizun honetan”

Beraz, tarteka bat-bateko bertso-saio itxura du ikuskizunak; baina izango da talde lanean egindako kanturik entzuteko tartea ere. Saio bakoitza ezberdina izaten da.

Aitor Rubio gitar jolearekin eta Xanpe baterijolearekin batera, proiektu horrek bigarren aldiz bildu ditu bi bertsolari,



GU TA GUTARRAK PROIEKTUAREN AURKEZPEN IRUDIA. AURPEGI BERRI ASKO AGERI DIRA, LAGUN ZAHARREN ITXURAN.

Unai Iturriaga eta Igor Elortza, eta musikari bat, Hertzainak taldeko kide izandako Josu Zabala. 1994an, musika taldea desegin ostean, 7 Eskale izeneko ekimenarekin bi bertso ikuskizun taularatu zituzten. Bertsoa musikara gerturatzea zen orduko asmoa. Proiektu berri honetan, ordea, bertsoerik eta musikarik faltako ez den arren, garrantzi gehien hitzak izaten du.

Sarrera, aldez aurretik, 10 euro

Sarrerak egunean bertan Sutegiko lehiatilan izango dira salgai, 12 eurotan. Hala ere, aldez aurretik, 10 eurotan eskura daitezke Txirristra tabernan eta

NOAUA!ko egoitzan.

NOAUA!ko bazkideek, ordea, sarrera merkeago erosteko aukera izango dute: 8 eurotan, baina irailaren 28a baino lehen eskuratu beharko dute NOAUA!ko egoitzan (Txirristra tabernan ez dira bazkideentzako sarrerak salduko).

ARITZ GORRITI

Gu Ta Gutarrak

Egunak: irailak 28 ostirala, 22:30ean Sutegin. **Antolatzailea:** NOAUA!
Babeslea: Usurbilgo udala.

Denon gutarrak agerian

Urte hasieran estreinatu zen emanaldiaren izenburuak dioen bezala, gutako bakoitzak geure barnean ditugun gutarrak azaleratuko dira Sutegin. Pertsona bakoitza nortasun ezberdinez eraikia dagoela argi erakusten du lanak. Gutar parrandazalea, zintzoa edo gaiztoa, eroa, politikoa, sexuala, axo-

lagabea... Askok dira, baina ordu eta erdiko saioan guztiak izango dute bere tartea, egileek prestatu dituzten bertso musikatuetan. Nortasun ezberdinak taula bakoitzean bilduta. Beraz, Sutegira irailaren 28an hurbiltzen den edonor bertan entzundakoekin identifikatua sentitzea ez da gauza zaila izango.



GU TA GUTARRAK PROIEKTUKO PROTAGONISTAK; IGOR ELORTZA ETA UNAI ITURRIAGA BERTSOLARIK, OHOLTZA GAINEKO EMANALDIAN.

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Mendiak eta ibaiak



Inguruan ditugu, gertu oso. Babesa eskaintzen digute. Baina gure gogoa oso urruti dabil haiengandik. Ez beti, ordea; ez asteburu hauetan, behintzat.

Igandean, lagun talde bat piraguan etorri da Oriotik Txokoalderaino Orian barrena.

Hamahiru lagun jolasean ibaiarekin, Puntapax kirol elkar-teak antolatutako jardueran. Bazterrez gozatzeko aukerako giroa; inguruak zoragarri: koartzak, beltxargak, ubarroiak, martinak ... Paradisua litzateke ura garbia balitz!

Bestalde, zubietar asko dira hilabete honetan Ernioko erromeriara joaten direnak. Batzuk bertatik, beste batzuk autoan Iturriotzeraino hurbilduta. Aukera ederra mendiaz gozatzeko, nahiz eta batzuetan jende gehiegi ibili. Bereziki aipatu nahiko nuke Arantxa Eizagirre. Hilabete honetan, bitan egin du bertarainoko joan-etorria korrika, entrenatzen. Joan den igandean Aizkorriko maratoinan parte hartu du: 42km bete ditu 6 ordu eta 7 minutuan. Bejondaiola, ez da makala gero!

Bai mendiek bai ibaiek inguratzen gaituzte, babestu ere



bai, batzuetan. Eta hala ere oso urruti ibiltzen gara haiengandik. Haiekin gogoratu bai, baina antenak jartzeko, hiriak gogoko ez dituen zerbitzuak barreiatzeko, zikintze-ko...

TXOKOALDE

KOLDO HUEGUN

Bultzatzeko prest



Literaturarako trebezia edo pentsamenduak litz potolo bihurtzeko abilitadea dutenen-tzat, luzitzeko tresna suerta daiteke honako tarte hau, baino nire moduko garun herdoilduentzat ikusitakoa adierazteko eta ikusi nahi duguna aldarrikatzeko leihoa bihurtu da herriko aldizkaria.

Ikusitakoak... pelestin baten azpian 3 gizonet-ko eta emakume bat etzanda, ugazabaren zain... Bizkarreko zubian gizon emakume gehiago eta ertzain patrulla bat.. etorki-nak? Ugazaba bertan.

Ikusi nahiko genituzkeenak: auzoko aparkalekuak auzotarren-tzat eta ez goizeroko guda-lostearentzat bakarrik. Galardiko irte-era duin bat, inoiz arriskuan jarriko ez duen bidea eta ez Andatzara zuzendutako trailerrentzako pista. Auzoko bilgune bakarra den elkartearen etorkizuna ziurtatuta ikusi nahi genuke. Betiko aldarrikapen bihurtu diren trena eta etxebizitzaren premia ere hor daukagu. Arazo izatetik ondare izaterainoko bilakaera ikusi nahiko genuke.

Hau dena gauzatu dadin eta beharrezko diren pausoak eman-ten joateko, auzotar batzuk antolatzen ari dira eta ea auzo elkar-te moduan funtzionamendu hobea lortzen den auzotar guztien mesedetan.

Beraz adi eta bultzatzeko prest!

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Autorik Gabeko Eguna

Aspaldi idatzi gabe eta hementxe naiz Aberriz ere oporren ostean indarberri-turik. Dakizuenez, urtero herrian Autorik Gabeko Eguna ospatzen dugu eta aurten ere honela izango da. Irailaren 28an izango da, gainera aurten garagardo azokarekin batera izango da, ez da giroa faltako gure herrian beraz. Ekitaldia arratsaldeko 5etatik aurrera izango da eta urte-ro bezala txokolatada goxo goxo bat banatuko da askata-suna plazan. Eta hau amaitzean horrenbeste desiratzen diren bi bizikleta zozketatuko dira bata gaztetxoentzat eta bestea helduxeagoentzat.

Hala ere, Udarregiko ikasleek goizetik emango diote hasiera egun honi goizean bizikletaz ibiliko baitira herrian zehar denoi gogorarazten ez dugula horrenbeste erabili beharrik autoa. Beraz, egun horretan ia denok saiakera txiki bat egiten dugun eta kotxea alde batera uzten dugun. Askotan ohituragatik eta bestetan ezinaga-tik ia denok dugu ohitura kotxea hartzeko edozer gauze-tarako baita bi pauso eman beharreko zeozer denean ere!!

Guztiok pixkanaka aldatu beharreko gauza bat da, ia ba egun honetan behintzat aintzakotzat hartzen dugun.



AGINAGA

AITOR HELETA

Autopistako lanak



Aspaldi hasi ziren autopistako norabide bakoitzean hirugarren karrila egiteko lanak, eta ematen du ez dela inoiz bukatuko goitarrek jasan behar duten kalbarioa. Bide guztiak txikituta daude, etxera iristeko euren gurpilak pertsonak baino altuagoak diren kamioiekin borrokatu behar dute, euria egiten duenean metro erdiko lokatza, lehorra dagoenean berriz, jasanezina



suertatzen den hautsa. Hurrengo hilabetetan Artikulako zubia itxiko dute, metro bat altxatu behar dutelako, kamioi eta hondeamakina guztiak Arrate inguruko bidea hartuko dute, honek buruhauste gehiago ekarriko dizkie bertatik igaro behar dutenei. Agian Bidegiri norbaitek kontuak eskatu behar dizkio.

KALEZAR

MADDI GALBETE

Errutina



Beno, udara bukatu da eta orain, berriro ere errutinara salto egin beharra tokatzen zaigu. Hala ere, aldaketen urtea izan daiteke batzuentzat. Niretzat esaterako aldaketa txiki bat egon da... banoa Usurbildik Bilbora, ikastera... Gezurra dirudi baina faltan botako ditut hemengo hainbat txoko eta nola ez, hemengo hainbat pertsona...

Billboko zuhaitzen hostoak ikusiko ditut udazkenean erortzen, hemengoak izan beharrean, edota bertako elur malutak begiratuko ditut hemengoen beharrean. Kalezarko hainbat txoko ere ez ditut bertan topatuko, uste dut ez dudala Troiako aldaparen moduko aldaparik bertan topatuko... Eta gezurra dirudien arren, horrelako gauzak ere faltan botatzen dira kanpoan zaudenean.

Eta gutxien espero dugunean errutinan sartuko gara berriro ere, errutina ezberdin batean agian, baina errutina batean azken batean. Ni bezalaxe, nire adineko beste hainbat pertsonak ere kanpora joan beharko dute ikastera, emozioz eta ilusioz josiriko errutina berri horretan murgiltzeko asmoz.

Noski, hemengoa uzteak beti pena ematen du... Uda bukatu eta orain, berriro ere errutinara salto egitea tokatzen zaigu.

ATXEGALDE

MAIALEN UNANUE

Ahaztezinak

Ibaiek bizitzan lehen aldiz begiak ireki zituenean, bere ama ikusi zuen. Eta momentu hori bizitzan zehatz-mehatz gogoratuko ez badu ere, beti eramango du bere baitan iltzatuta.

Uxoak lehen aldiz bizikleta bat ikusi zuenean, haren gainean ibiltzeko beharra sentitu zuen. Hasieran lau gurpilekin ibiltzen zen, gero hirurekin. Azkenean, birekin ibiltzeko momentua iritsi zen eta lehenengo aldiz kostatu zitzaion arren, ez du sekula ahaztuko lurrera erori gabe mantentzea lortu zuen egun hura.

Martinek itsasoa zuen gogoko eta bost urte zituenetik, beti amestu izan zuen itsasontzi batean nabigatzeko egunarekin. Motorra piztu eta haizeak bere aurpegia ferekatzean, beti gogoratuko zuen hotzikara sentitu zuen lepo atzean.

Poza, urduritasuna, ezinegona... lehen aldi guztien adierazle izaten dira. Kronika hau idaztean nire eskuak egiten dituen dardarak seinale horien lekuko dira. Hau baita zerbait idatzi eta argitaratzen didaten lehen aldia eta baita inoiz ahaztuko ez dudana ere.



Irailaren 28an amaituko da begirale ikastaroan izena emateko epea

Buruntzaldeko udalek, tartean Usurbilgoak, aisialdiko begirale izateko ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa Hernanin eskainiko den arren, Buruntzaldea eskualdeko edonork har dezake parte. Matrikula 200 eurokoa da (Buruntzaldetik kanpoko ikasleek, ordea, 400 euro ordaindu beharko dituzte).

Urrian hasiko da eta ikasturte osoko iraupena izango du, datorren urteko maiatzean amaituko baita. Hori bai, izena emateko epea irailaren 28an amaituko da.

Informazio gehiago udaletxeko telefono zenbaki honetan jaso ahal izango da: 943 371 999.



BEGIRALE TITULUA JASOKO DU
IKASTAROA OSATZEN DUENAK.

200 orduko iraupena du begirale ikastaroak

Iraupena
200 ordu.

Lekua
Hernanin.

Ordutegia
Saioak larunbatetan izango dira, goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldeaz 15:30etik 19:30era.

Ikastaro egunak
Urriak 6, 20, 27
Azaroa: 10, 17

Abendua: 1, 15
Urtarrila: 12, 19, 26
Otsaila: 9, 16, 23
Martxoa: 1, 8, 15
Apirila: 5, 12, 19
Maiatza: 10, 17

Lau asteburu
4 asteburu aterpetxe batean igaroko dira, baina igandeak ez daude oraindik zehaztuta. Kasu horietan, larunbat goizean hartuko da autobusa eta igandean arratsaldean bukatuko da saioa.

1956ko kintoen afaria

Patri jatetxean bilduko dira larunbat honetan, irailak 29an, gaueko 21:00tan. Izena emateko: 695780696 (Blanka) 943363195 eta 687706363 (Mertxe).

1955ean jaiotakoen ospakizuna, urriaren 20an

Urriko hirugarren larunbatean elkartuko dira, aurtan, urriaren 20an. Izena emateko: Karmele, 943 364631 / Rosario, 666 916000.

1983koen kinto afaria

Urtero legez, San Praixkuetan 1983an jaiotakoen afaria egingo da. Urriaren 13an izango da, Aginaga Sagardotegian. Ardi Beltz Garagardotegian dagoen zerrendan eman behar da izena. Izena ematen duenak soilik joan ahal izango du afarira. Izena emateko azken eguna urriaren 7a. Bestela, deitu zenbaki honetara: 662 056 899. Afal aurretik, poteo koxkorra egingo da. 19:30etan Irratin hasita.

Helduen Hezkuntza Eskola

Doakoa eta ofiziala da Agerialden dagoen Helduen Hezkuntza Eskola. Zabalik da izena ematea; arratsaldeaz, 16:00-18:00 artean edota honako telefono zenbakietan: 943 361 273 eta 943 366 608.

Guraso Eskolak ikastaro ugari antolatu ditu

Sabel eta saloi dantzak, pintura eta eskulanak, laboreak, masajea, yoga, memoria lanketa, sukaldaritza eta bitxigintza. Berrikuntzekin eta eskaintza indartuta datoz Guraso Eskolakoak. Ikasturteari urrian ekingo diote, baina proposatzen diguten ikastaroetan izena emateko eguna irailaren 26a izan zen. Informazio gehiago: 615 006 535.

Zirriborro pintura eta eskulan tailerrean izena emateko epea, zabalik

Klaseak urrian hasiko dira Zirriborro pintura eta eskulan tailerrean. Aurretik, bilera bat egingo da tailerraren egoitzan bertan: irailaren 21ean ostirala, arratsaldeko 19:00etan. Helduentzat nahiz haurrentzat den tailer honen inguruko informazio gehiago jaso nahi baduzu, eskura duzu honako telefono zenbakia: 609 41 38 83.

Heldu zein gazteentzako ikastaroak Santuenea Kultur Elkarteak

Urritik aurrera ikastaro hauek emango dira. Helduentzat: yoga, saloi dantzak, kostura (baserritar jantziak), sukaldaritza (Ibai Ondo elkartearen urriak 24-31 eta azaroak 7-4-21 eta 28an arratsaldeaz), autoestima tailerra.

Haurrentzat: pintura eta plastika, antzerkia.

Informazio gehiago elkartera deituta 943 36 72 62 telefonoan.

“Kaleak Guztiontzat”

Lema horrekin ospatuko da, ostiral honetan, Autorik Gabeko Eguna

Autoa etxean utzi eta bestelako garraiobideak erabiltzeko deiak argaritzen dira egunotan. Baita, jarrera hori urte osoan aplikatu beharko litzatekeela dioten mezuak ere. Ibilgailu pribatuak neurritz kanpo erabiltzeak ekartzen dituen ondorioez jabetuta, irailaren 22an izan zen urteroko Autorik Gabeko Eguna. Baina Santueneko jaiak tarteko, Usurbilen ostiral honetan, hilaren 28an ospatuko da. Ikasle direnei zuzendutako ekintza ugari antolatu ditu udalak, “Kaleak guztiontzat” lemapean. Egun berezia dela eta, kaxkora hurbiltzen denak autoa aparkatuta utzi beharko du. Trafikoarentzat itxita izango baita herriko erdigunea.



IAZ BEZALA, ARRATSALDEZ TXOKOLATEA BANATUKO DA ASKATASUNA PLAZAN.

Ekitaldi ugari, goizez nahiz arratsaldez

Goiz partean

DBHko ikasleei ikastolara bizikletaz joateko gonbidapena egin zaie.

12:30 bizikletak hartu eta Txokoaldera joango dira, handik San Estebanera igo eta herrira bueltatuko dira. Ibilbidea egiteko ikasleek buruko kaskoa eraman beharko dute. Ikasleei errepidean nolako jarrera eduki behar duten adieraziko zaie.

Udaltzaingoak lagunduko die. Aurtan, gainera, gurasoei ere bizikletan beraiekin joateko gonbidapena luzatu zaie.

Arratsalde partean

16:30ean DBH4ko ikasleek txokolatea banatuko dute Askatasun plazan.

16:30-19:45 bitartean, puzgarriak frontoiaren atzealdeko katean, musikaz giroturik.

18:00-19:00 bitartean, buruhandiak kaleetan zehar, Zumarteko trikitilari eta txistulariekin batera.

20:00 bizikleten zozketa kiroldegiaaren aurrealdean.

Antolatzailea: Usurbilgo udala.

Oharra: Eguna osoz kaxkoa trafikoari itxita izango da.

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

MAHUKA
ETXEBESTE KALEA, 3- 943 361 106
Lemen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

Kalkos kopisteria
FOTOKOPIAK
zuri-beltza · koloretan
BANDERA
SALMENTA
PINTORE KALEA 7 · LASARTE-ORIA
943 376 424 · 943 376 155 (FAX) kalkos@copisteriakalkos.com

Kima
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA
TEL. 36 61 97

Usurbilgo Dantza Taldea herriz ere martxan

“Iaz 80 ikasle izan genituen”

Itxi da izena emateko epea. Larunbat honetan, gurasoeekin egingo duten bilerarekin ekingo diote ikasturte berriari dantza taldekoek. Gurasoak bilerara joatea eskatzen dute (16:30ean Agerialdeko frontoian), denen artean entsegu egun eta ordua zehazteko.

NOAUA! Hilaren 20an itxi zen izen ematea. Zenbat talde osa ditzakezue?

Amaia Etxeberria. Iazko askok jarraituko dute.

Eli Eizagirre. Pasa den ikasturtean, 80 ikasle ziren eta mailaka banatzen ditugu. Zaharrenak, gutxiago zirelako, LH 5-6 mailetakoa eta DBH-ko 1. mailakoak batera izan dira.

N. Beti talde konkretu bat sortu nahi eta ezin.

A. E. Mutilena. Mutilik ez da apenas. Hamaika daude, laurogeitik. Kirolak direla tarteko, normalean dantzan mutilek behintzat atzera egiten dute.

E. E. Daudenak 7-10 urte artekoak dira. Txikitatik izena eman, eta gero adinean aurrera egin ahala, utzi egiten dute.

Aitor Irazusta. Betiko arazoa hori da, ez direla helduagoekin taldeak osatzen.

N. Zer urtetik aurrera ezin izaten dira osatu taldeak?

E. E. 14 bat urterekin. DBH-n hasi osten izaten da.

N. Ikasturtea amaitu berritan, beste hasi?

E. E. Ikasturte amaiera berez, emaldiak izaten dira. Orain arte, San Estebanetan amaitzen genuen. Eta iraila hasieran irteera egiten genuen. Aurten, ordea, Santueneko jaietakoa sortu da.

N. Aurtengoari begira, nobedaderik?

E. E. Azken urteetan baino haur dezente gehiago ditugunez, monitore aldetik justu samar gabiltza. Animatzen dena jarri dadila gurekin harremanetan; dantzataldea@usurbil.com.



DANTZA TALDEKOAK PASA DEN SANTIXABELETAN UDALETXE AURREKO ESKAILERATAN, EMANALDIA ESKAINI ONDOREN. HERRIKO JAIETAN PLAZARATU OHI DUTE, URTE OSOAN AGERIALDEN PRESTATZEN ARITZEN DIRENA.

DANTZA TALDEA

“Azken urteetan baino haur dezente gehiago dugunez, monitore aldetik justu samar gabiltza”

A. E. Monitore bezala, gabiltzanak garai batean dantzan aritzen ginenak gara.

N. Eta dantzan irakasteko moduan aldaketarik izango al da?

E. E. Taldeak nolakoak diren ikusita, erabakitzen da zer dantza egin.

N. Entsegu eguna. Zer egin ohi duzue?

E. E. Talde guztiek aurrekua, agurra, arin-arina eta fandangoa ikasi behar dute, denek batera egiten dutelako. Gero, talde bakoitzak plazan egin behar duen bere dantza ikasten du.

N. Dantzan hasi berritan eta ideia-rik ere ez. Egoera horretan dagoena lasai asko egon daiteke dantza taldean?

E. E. Bere adinekoen taldean jarri eta akaso, berarekin lanketa handiagoa

egiten da, baina besteekin batera dantza egiten du. Ez dago arazorik.

N. Zeintzuk dira dantza taldeak egutegian gorritz markatuta dituen egunak?

A. I. Duela bi urte Villabonako eta Alegiko Dantzari Txikien egunera joan ginen. Bestela, herriko eta auzoko jaietan parte hartzen dugu.

N. Ostiral honetan, irailak 28, bilerazue gurasoeekin.

E. E. Gurasoak bilera horretara agertu daitezela. Horren arabera, joan ahal izango du eta, haien seme-alabek entsegu egunera.

A. I. Gurasoen bilera, entsegu eguna finkatzeko izango da. Haiek etortzea garrantzitsua da. Gertatu izan baita, gurasoak bilerara azaldu ez, eguna eta ordua erabaki, eta gero, joan ezinik geratzea.

Astean egun bat, ordu bat izaten da. Haiek izaten duten denbora tarte horretara, ordutegira moldatzen gara. Dantza normalean hartzen den azken ekintza izaten baita. Beste ekintzek dantzak baino lehenetasun handiagoa dute.

Larunbatean, Sutegin, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako saioa

Pasa den larunbatean abiatu zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Finala, dena den, abenduaren 16an izango da, Donostiako Ilunbe zezen-plazan. Kanporaketa faseko saioetako bat, ordea, Sutegin jokatu da. Larunbat honetan, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

Hauek izango dira Sutegiko kanporaketan arituko diren bertsolariak: Felix Zubia, Unai Muñoa, Karmele Mitxelena, Iñaki Petxarroman, Arkaitz Oiartzabal, Iñigo Gorostarzu.

Sutegiko saiorako sarrerak egunean bertan eskuratu ahal izango dira, Sutegiko leihatilan.

Usurbildar bertsolaririk ez

Ez da usurbildar bertsolaririk izango Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan. Gai-jartzaileetako bat, ordea, Inaxio Usarralde izango da; baina Txokoaldekoak Ataunen jokatu den kanporaketa saioan egingo du bere lana.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa jarraitzeko webgunea sortu dute: www.gpuntua.com. Txapelketaren gai-

neko informazio guztia egongo da bertan: parte-hartzaileen biografiak, saioei buruzko datuak, aretoetara iristeko mapak, kronikak, bertsoak entzungai...

Bertsolari Txapelketa

Eguna: irailak 28 larunbata, arratsaldeko 18:00etan Sutegiko auditorioan.

Bertsolariak: Felix Zubia, Unai Muñoa, Karmele Mitxelena, Iñaki Petxarroman, Arkaitz Oiartzabal, Iñigo Gorostarzu.

Antolatzailea: Bertsozale Elkarte.



IÑAKI PETXARROMAN



FELIX ZUBIA



UNAI MUÑOA



KARMELE MITXELENA




ARKAITZ OIARTZABAL



IÑIGO GOROSTARZU

I n t e r n e t - z e r m u n l k



Telf: 943 36 61 21

Alperroburu, 1

Ioli Lizarralde
Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.
Zubiaurrenea, 5B ☎ 943 361 971

Heapaindegia eta Solarium-a

Olarriondoko eta Ugartondoko etxebizitzak aztergai

Zozketa egin baino lehen, urrats asko eman behar dira

Azken asteotan, zurrumurru asko zabalduta dira Olarriondoko eta Ugartondoko babes ofizialeko etxebizitzaren inguruan. Jende asko zain dagoen seinale. Lehengo astean, udal gobernuak ordezkariarekin bilatzeko aukera izan genuen. Hitz gutxitan, honela daude gauzak: Olarriondoko eta Ugartondoko etxebizitzak, mantso, baina aurrera doaz. Babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa, garaia iristen denean egingo da. Eta zozketa hori egiteko, maiatzaren osatu zen zerrenda errespetatua izango da.

Olarriondo eta Ugartondo. Biak batera aipatu diren urbanizazioak dira. Baina ez daude elkar lotuta. Are gehiago, erritmo ezberdinean garatzen ari dira. Beraz, lehen lehenik, bata zein besteak zein urrats jarraitu dituzten azalduko dugu.

Olarriondoko promozioa

Jose Antonio Altunaren garaian, (2003 urte arteko agintaldian, hitzarmen bat sinatu zen Olarriondon. Baina hitzarmen hori ez zuten lur-jabe denek sinatu. Ezker Abertzaleak agintzen zuen garai hartan, eta babes ofizialeko ahalik eta etxe gehien eraiki nahi ziren (240 aurreikusi ziren). Baina lur-jabe batzuk, ordea, aprobetxamendu gehiago nahi zituzten. Horregatik, lur-jabe denek ez zuten Altunaren garaian proposatu zen hitzarmen hura sinatu.

Lehen urratsa, Plan Partziala

2003an, Luis Mari Ormaetxearekin EA udal gobernuan sartu zenean, hitzarmen berri bat proposatu zen. Olarriondoko jabe guztien sinadurak lortu ziren. Proiektuan, ordea, babes ofizialeko etxebizitzak 120 aurreikusi ziren; gainontzeko 120 etxebizitzak,

tasatuak.

Hitzarmen hori sinatu eta arauak behin betikoz onartu ondoren, Olarriondori eragiten dion Plan Partziala egiten hasi ziren. Plan Partzialetan, aprobetxamendu guztiak zehazten dira: zenbat etxebizitza eraikiko diren, etxeak non joango diren, udaletxearentzat zesioak zenbat izango diren...

2006ko azaroan, Foru Aldundiak hasierako onespina eman zion Olarriondoko Plan Partzialari. Baina lur-jabeetako batek errekurtsioa jarri zuen epaitegian. Plan horretan zehazten den aprobetxamendua ez du onartzen. Aprobetxamendu gehiago nahi du eta errekurritu egin du Plan Partziala. Dena den, lur-jabeen gehiengoak plana onartzen duenez, aurrera doa Olarriondoko promozioa.

Bigarren urratsa, Birpartzelazio Proiektua

Plan Partziala eta gero, Birpartzelazio Proiektua egin behar da. Birpartzelazioan, jabe bakoitzari zehazten zaio zeren jabe egiten den. Pastelaren zein zati tokatzen zaion, beste era batean esanda. Birpartzelazio Proiektua amaitu gabe eta udaletxean aurkeztu gabe dago oraindik.

Hirugarren urratsa, Jarduera Programa

Urbanizatzeko Jarduera Programa, etxebizitzaren gauzatzea nola egin behar den zehazten duena, udaletxean aurkeztuta dago. Horren ondotik iritsiko litzateke Urbanizazio Proiektua aurkezteko garaia.

Laugarren urratsa, Etxebizitza Proiektua

Etxebizitza Proiektuak, babes ofizia-



OLARRIONDON BABES OFIZIALEKO 120 ETXEBIZITZA AURREIKUSI DIRA ETA BESTE 120 TASATUAK.

leko zein etxebizitza tasatuen kasuan, Eusko Jaurlaritzara bidali behar dira. Gasteizko gobernuaren kalifikazio probisionala jaso behar dute. Beste era batean esanda: Etxebizitza Proiektua egin arte, ezin da etxebizitzarik zozketatu. Etxebizitza Proiektuak Eusko Jaurlaritzaren onespina jasotzen duenean, orduan ziurtasun handi batekin esan ahal izango da etxeak nolakoak izango diren, etxebizitza bakoitzak ze ezaugarri izango dituen eta zein prezio-tan salduko den.

Lehen urratsean oraindik

Lau urrats zenbatu ditugu eta, bistan denez, Olarriondoko egitasmoa hasierako fasean da oraindik. Gauzak horrela, Xabier Mikel Errekondok gidatzen duen udal gobernuak ez da zozketa data bat ematera ausartzen: "Prozesu osoa bete arte, data bat jartzea ezinezkoa da. Gauza bat argi dago, gutxienez negua pasako dela zozketak egin ahal izateko". Eta negua martxoan amaitu ohi da. Baina Xabier Mikel Errekondok adierazi digunez, "argi daukaguna zozketa egin nahi dugula eta egingo dugula".

IMANOL UBEDA

Estazio elektrikoa, konpontzeke dagoen beste arazoa

Olarriondori dagokion S-5 sektorearen garapenean, gainera, arazo gehiago egon daitezke. Jabeetako baten errekurtsio bat dago tartean eta errekurtsio horren argitzeak etxebizitzaren

azteratzea ekar dezake.

Ez hori bakarrik. Olarriondoko etxebizitzak estazio elektriko baten menpe daude. Etxebizitza-multzo honen garapenean, aurreikusi zen nonbait baina

konpondu gabe dagoen arazoa da. Xabier Mikel Errekondo alkateak adierazi digunez, "ari gara Iberdrolarekin hizketan, arazoa bideratu nahian. Diru askotaz ari gara hizketan".

Ugartondoko lantegiak Atallura eraman arte, ez dira bertako etxebizitzak eraikitzen hasiko

Ugartondoko etxebizitzaren promozioa Olarriondokoa baino atzeratuago doa. Arau Subsidiarioetan aldaketa bat egin zen Ugartondoko egitasmoa garatu ahal izateko, eta aldaketa hori errekurrituta dago (UHLk epaitegietara jo zuen bere garaian).

Bi promozioak, Olarriondokoa eta Ugartondokoa, erritmo ezberdinean dihoaz. Batak ez du bestearekin zerikusirik, bi sektore ezberdin dira.

Ugartondoko kasuan, Plan Berezia (Olarriondoko Plan Partzialaren parekoa litzatekeena) onartu gabe dago oraindik. Plan Berezia osatu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzak onartu beharreko ingurumen txostena falta da.

Dena egiteko oraindik

Eusko Jaurlaritzan dago espediente eta, beraz, Olarriondokoa baino atzeratuago dago Ugartondokoa: Birpartzelazio Proiektua ez da aurkeztu oraindik, ezta Jarduera Programarik,

Etxebizitza Proiektua falta da... Eta hemen ere, argi-indarraren arazoa dago tartean.

Atalluren menpe dago Ugartondoko egitasmoa

Baina Ugartondori beste kontu batek ere eragiten dio. Atallun eraikitzen ari diren industrigunea. Ugartondoko etxebizitza-egitasmoa bideratu ahal izateko, bertako lantegiei Atallura joateko aukera eskaini zitzaion. Eta Ugartondoko lurjabeekin hala adostu zen: Ugartondoko lantegiak Atallura eraman eta orduan hasiko lirake etxebizitzak eraikitzen. Atalluko industrigunea, ordea, bukatu gabe dago oraindik (Ugartondoko lantegiak hartuko dituen lur-zatian orain hasi dira obrak). Beraz, etxebizitzak ezin dira egin Ugartondoko enpresak Atallura eraman arte. Urte eta erdi pasako da Ugartondoko lantegi horiek bilduko dituen Atalluko partzela amaituta ikusi arte. Beraz, kontuak ateratzea ez da zaila. 2009a arte ezin dira Ugartondoko etxebizitzak eraikitzen hasi.



UGARTONDON, BABES OFIZIALEKO 48 ETXEBIZITZA AURREIKUSI DIRA; BESTE 48 TASATUAK IZANGO DIRA.

Zozketa bakarra egingo da

Babes ofizialeko etxebizitzaren zozketarako izena eman zutenei, zer esan behar zaie? Hori da galdera eta hauxe alkatearen hitzak: “maiatzean osatu zen zerrenda hori intentzio osoarekin erabilia izan dela. Logikak agintzen duena baino dezente lehenago behartu zuten jendea izena ematera –aurreko udal gobernuari zuzenduz–. Hori salatu nahi dugu, baina zerrenda hori errespetatuko da inolako zalantzarik gabe”.

Udal hauteskunde giroan kokatu du zerrenda osatzeko epealdia, maiatzaren 4an amaitu zena: “nabarmenki erabili zuten zerrendaren kontua eta baita babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa ere. Etxebizitzak bideratu gabe zeuden eta, hala ere, zerrendan izena emateko deia egin zuten”.

Bada zozketarekin lotutako beste

kontu bat ere. Izena emateko epea zabaldu zenean, bi zozketa egingo zirela aurreikusi zen: lehen zozketan, etxebizitza lortu dutenen izen-abizenak zehaztuko lirake. Bigarren zozketan, etxea lortu duten horiei, zein etxebizitza egoituko litzaieken jakinaraziko zitzaion.

Xabier Mikel Errekondok aditzera eman digunez, formulazio horrek “ez du zentzurik; (aurreko udal gobernuak) espekulatu egin dute zozketen kontuarekin eta gainera ez dira ausartu egitera. Logikaz egin behar dira gauzak. Bi promozioetako Etxebizitza Proiektuak egingo daudenean, orduan jakingo dugu etxebizitza bakoitza nolako izango den, zein ezaugarri izango dituen eta zein prezioetan salduko diren”. Zozketa bakarra izango da, beraz, eta dagokion unean egingo da.

“Maiatzean osatu zen zerrenda errespetatua izango da”

Kontuak kontu, “maiatzean izena eman zutenen zerrenda errespetatu egingo dugu”, hala adierazi digu Xabier Mikel Errekondok.

Dena den, urrats ezberdinak ematen diren bitartean, beste lan bat aurreratu dezake udalak: izena eman zutenen zerrenda horretatik, zein izan den onartua eta zein ez argitzea. Beste era batean esanda, zozketan parte hartzeko ezarri ziren baldintzak nortzuk betetzen dituzten eta nortzuk ez zehaztea. Izan ere, onartua izan ez denak helegitea edo errekurtsioa aurkezteko eskubidea du. Eta horrek ere bere denbora eskatzen du. Beraz, lan hori, oraintxe bertan bideratu daiteke. Lehenbailehen prozesu hori martxan jartzen ahaleginduko direla ziurtatu dute udal gobernuak kideek.

Informazio kanpaina

Udal gobernu-taldeak badaki gai honek jakinmin handia pizten duela. Gauzak nola dauden azaltzeko, udaltxeako informazio-kanpaina bat prestatzen ari dira. Laster izango dugu kanpaina horren berri.

Garagardoaren asteburua

Azokak lau eguneko iraupena izango du eta bertan afaltzeko aukera izango da

Jakinmina piztu du Garagardo Azokak. Izan ere, garagardo zaleek orain arte beste herri batzuetara joan behar izaten zuten. Baina, aurtan, Usurbil Futbol Taldeak egin duen ahaleginari esker, frontoian bertan izango da azokaz gozatzeko aukera. Ostegun honetan hasi eta datorren igandean amaituko da Garagardo Azoka.

Kilometroak eta antzeko festetan bezala, tiket bidez ordaindu beharko da. Plataforma txiki bat egongo da frontoian, Heineken etxekoa. Bertan erosi beharko dira garagardo basoak, garagardoa edateko tiketak eta janerako tiketak.

Garagardo mota ezberdinak izango dira aukeran, bakoitzak gehien gustatzen zaionetik edateko: Guinness, Heineken, hiru

Paulaner klase, Affligem, Murphy's, Buckler alkoholik gabea eta Amstel Oro.

Jatekorik ere izango da, garagardotegietan ohiko omen dena: txerri ukondoa, saltxitxak eta patata purea. Postrea ere eskainiko da.

Egunero, azokan bertan afaltzeko aukera

Azoka ostegun honetan arratsaldeko 18:00etan irekiko dute. Ostiralean, larunbatean eta igandean ere, bertan afaltzeko aukera izango da. Goizeko 1:00ak arte izango da azoka zabalik.

Azoka Usurbil FT taldeak antolatu du. Diru-iturri honen bidez, kirol taldea indartu nahi da. Aurtengo azokak arrakasta badu, urtero antolatzeko asmoa dutela adierazi digute Usurbil FT taldeko kideek.



SALTXITXAK ETA TXERRI UKONDOAK
DASTATU AHAL IZANGO DIRA.

Mendeku itXuak bideoklipa aurkeztu berri du

Aurrerapauso garrantzitsua eman dute Mendeku Itxuak taldeko kideek. Haien lehen bideoklipa grabatu eta dagoeneko sarean eseki dute. "Bide galduan" da, Gasteizen eta Usurbilen grabatu duten laneko abestia. Baina badute esku artean bestelako zereginik ere; datorren urtean argitaratzeko asmoa duten disko berria prestatzea.

Udaberrian burutu zituzten grabaketa lanak. Gasteizen dituzten lagunek bertako industriadetik osteratxo bat egin eta hara non aurkitu zuten haien gustuko gune egokia; urtebete lehenagotik erabat utzia zegoen pabilioi bat. "Gainbeheran zegoen leku bat aukeratu nahi genuen", adierazi du Ixak Arrutik. Martxoko bi asteburutan egin zituzten bertako lanak; eguzki orduak uzten zuten neurrian, horren mugarekin. Usurbilen osatu dute bideoklipa.

Gaurkotasun gaiak

"Bide galduan" abestiari jarri nahi izan diote irudia. Haien esanetan, "erritmo aldetik, bizia eta indartsua baita". Uneak



berak eskatzen duen abestia da, gaurkotasunekoa erabat. "Egungo gizartea doan bidean jarraituz gero, nora goazen azaltzen du abestiak", adierazi du Ander Aizpuruak.

Momentuz, Interneteko honako bi helbideetan ikusi eta entzun daiteke taldearen lehen bideoklipa; www.euskaltube.com/play.php?vid=401 edota www.MendekuitXua.net guneetan. Egun gutxitan, 480 bisita izan ditu "Bide galduan" abestiak.

Baina hedapen handiagoa izateko telebistara jotzeko asmoa dute. Elkarriketatu genituenean, egun gutxi geratzen zitzairen Euskal Telebistako

"Sutan Blai" saioan parte hartzeko. Usurbilgo gazteei lotutako hiru errepor-taje osatzeko asmoa dute ETB-koek. Irailaren 25ean etortzekoak ziren.

"Abestiak landuagoak izango dira, ikasitakoa aplikatzen ari gara", adierazi dute. Horrela aurkeztu dute, datorren urtean argitaratu nahi duten disko berria. Kanta batzuk, diskaren laurdena jada prest omen dute. Urte hasieran, grabaketa estudioetan buru belarri sartuko dira. Ortots haien lehen laneko zigiluak, bigarren lana zigilupe berean argitaratzeko eskaintza egin die. Hori iritsi artean, ordea, urriaren 19an Gasteizko Gaztetxean kontzertua eskainiko dute.

Aurten lau ordezkari izango ditu Usurbil Futbol Taldeak

Azken urteetan hiru talderekin ibili ondoren aurtengo denboraldia lau talderekin hasi du Usurbil Futbol Taldeak. Errejonial mailan ari dira hiru, gizonetzkoetan bi eta emakumezkoetan bat, eta aspaldiko partez kadete mailan ere ordezkari izango du herriko futbol taldeak. Harrobiko lana egin ez, pixkanaka-pixkanaka maila guztietan taldeak izatea da bertako ordezkarien helburua eta horretan lanean ari dira.

Duela urtebete inguru amaitu zuten Harane futbol zelaia eraberritzeko lanen lehen fasea eta orduz geroztik belar artifizialeko zelaian jokatzen ari da Usurbil Futbol Taldea. Orain aldagela berrien eraikitze lanak amaitzea besterik ez da falta eta laster instalakuntza ezin hobea izango dute beraien eskura. Bien bitartean, berrikuntza honek herrian futbola berpizteko balio izan du, eta 2007/2008 denboraldian lau talde ditu lehian herriko futbol taldeak.

Errejonalean, bi talde

Gizonezkoen errejonial mailan bi talde osatu dira Usurbilen historian lehen aldiz. Zuzendaritzak hasiera batean talde bakarra ateratzeko asmoa bazuen ere, ekainean egin zuten deialdira jokalaria ugari gerturatu ziren eta aurre denboraldian 50 jokalaritik gora izan dira Harane futbol zelaian. Honela bada, bigarren talde bat ateratzeko erabakia hartu zuten eta dagoeneko liga hasi dute bi taldeek.

Iker Dorronsoro igeldoarra da 1. Errejonial mailako taldearen entrenatzaile berria. Orioko eta Mutriku taldeetan izan ondoren, bere gidaritzapean lanean ari dira herriko jokalaria. Aurreko denboraldiko taldeko jokalaria gehienek jarraitzen dute aurten ere, baina jokalaria berriak ere badira. Donostiatik etorri dira bost, Errealeko beheko mailetan eta UPVn jokatutako Julen Otxagabia herritarra ere taldean da, Jorge Sanchez berriz hasi da futbollean eta jubeniletatik igo da Andoni Irastorza.

Denboraldi hasiera ez da onegia izan



IGANDE HONETAN BIGARREN JARDUNALDIA JOKATUKO DA.

talde honentzat. 2-2 berdindu zuten Haranen Allerruren aurka eta 2-0 galdu zuten Astigarragan 2. jardunaldian, baina asteburu honetan lehen garaipena eskuratzeko aukera izango dute Haranen. Arratsaldeko 15.30etan hasita Tolosa B izango dute aurrez aurre.

2. Errejonial mailako taldeak, aldiz, hasiera hobea izan du. Galdu egin zuten 1. jardunaldian Tolosan Amarozen aurka, baina 4-1 nagusitu ziren Haranen pasa den asteburuan Zizurkilgo Danenaren aurka. Asteburu honetan Lasarte-Orian jokatuko dute Ostadarren aurka.

Jokalaria gazteek osatutako taldea da hau. Pasa den denboraldian jubenil mailan jokatu zuten jokalariai dira gehienak, Añorgan jubenil mailan ari tutako bi herritar ere herriko taldean dira eta duela urte gutxi futbola utzi zutenetik batzuk ere berriz ere federatu mailan jokatzerantz animatu dira. Honenbestez, jokalaria gazteak dira talde honen oinarri, tartean oraindik jubenilak diren batzuk ari direlarik.

Emakumeen taldea

Emakumezkoen taldeak ere lehian jarraituko du aurtengo denboraldian. 10 urte baino gehiago pasa dira talde hau sortu zenetik eta azken urteetan taldea osatzeko zailtasunekin ibili badira ere, berriz ere aurrera atera dira. Orain arte jokatutako bi neurketak galdu dituzte, baina denboraldiak aurrera egin ahala emaitza hobekien lortzeko asmotan dira Aritz Arrizabalaga eta Ivan Sanchoren aginduetara.

Kadete mailan, lehen aldiz

Kadete mailako taldea da aurtengo beste nobedadeetako bat. Azken hiru denboraldietan ez da 14-15 urteko herritarrez osatutako futbol talderik izan, baina aurten maila honetan ere ordezkari izango du Usurbil Futbol Taldeak. Agustin Dominguez eta Josetxo dira talde honetako entrenatzaileak eta ezin hobeto hasi dute denboraldia. 6-0 irabazi zuten Haranen eta pasa den asteburuan atsedena izan ondoren, larunbatean jokatuko dute Haranen Inter-Aitzgorri B taldearen aurka.

JOSU ARANBERRI

Madrilgo helmugaraino iritsi zen Haimar Zubeldia

Haimar Zubeldiak 3. etapan erorikoa izan zuen eta lepaiztatzen min hartu bazuen ere, Espainiako Itzulian jarraitu zuen eta Madrilgo helmugara iristea lortu zuen. Eroriko horrek asko baldintzatu zuen Haimarren partehartzea. Samuel Sanchez taldekideari laguntza ederra eman dio amaitu berri den Espainiako Itzulian.

Bestalde, bere anaiak ez du datorren denboraldian Euskaltel-Euskadin jarraituko. Irailaren hasieran taldeko zuzendariak jakinarazi zuten, Joseba Zubeldia ez da taldean izango datorren denboraldian. San Estebango txirrindulariak 6 urte egin ditu talde honetan.

Autobus Orduetgia

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orre	Zarautz	Zarautz	Orre	Usurbil	Urbil	Donostia
07:40	>>	08:05	08:15	08:25	06:45	06:55	07:05	>>	07:30
08:10	>>	08:35	08:45		07:15	07:25	07:35	>>	08:00
08:40	>>	09:05	09:15	09:25	07:45	07:55	08:05	>>	08:30
09:10	09:30	09:35	09:45		08:15	08:25	08:35	>>	09:00
09:40	>>	10:05	10:15	10:25	08:45	08:55	09:05	>>	09:30
10:40	>>	11:05	11:15	11:25		09:30	09:40	09:50	10:10
11:40	>>	12:05	12:15	12:25	09:45	09:55	10:05	>>	10:30
12:10	12:30	12:35	12:45			10:30	10:40	10:45	11:10
12:40	>>	13:05	13:15	13:25	10:45	10:55	11:05	>>	11:30
13:10	13:30	13:35	13:45		11:45	11:55	12:05	>>	12:30
13:40	>>	14:05	14:15	14:25	12:45	12:55	13:05	>>	13:30
14:10	14:30	14:35	14:45			13:30	13:40	13:45	14:10
14:40	>>	15:05	15:15	15:25	13:45	13:55	14:05	>>	14:30
15:10	15:30	15:35	15:45			14:30	14:40	14:45	15:10
15:40	>>	16:05	16:15	16:25	14:45	14:55	15:05	>>	15:30
16:40	>>	17:05	17:15	17:25		15:30	15:40	15:45	16:10
17:40	>>	18:05	18:15	18:25	15:45	15:55	16:05	>>	16:30
18:10	18:30	18:35	18:45			16:30	16:40	16:45	17:10
18:40	>>	19:05	19:15	19:25	16:45	16:55	17:05	>>	17:30
19:10	19:30	19:35	19:45			17:45	17:55	18:05	18:30
19:40	>>	20:05	20:15	20:25	18:45	18:55	19:05	>>	19:30
20:15	20:35	20:40	20:50	21:00		19:30	19:40	19:45	20:10
21:00	21:20	21:25	21:35	21:45	19:45	19:55	20:05	>>	20:30
22:15	22:35	22:40	22:50	23:05	20:45	20:55	21:05	21:10	21:30
					21:15	21:25	21:35	21:40	22:00

00:00 Astelehenetik Orre

00:00 Astelehenetik Orre

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orre	Zarautz	Zarautz	Orre	Usurbil	Urbil	Donostia
00:00	00:20	00:25	00:35	00:45	06:45	06:55	07:05	07:10	07:30
00:00	00:20	00:25	00:35	00:45	07:45	07:55	08:05	08:15	08:40
10:00	10:20	10:25	10:35	10:45	08:45	08:55	09:05	09:15	09:40
11:00	11:20	11:25	11:35	11:45	09:45	09:55	10:05	10:15	10:40
12:00	12:20	12:25	12:35	12:45	10:45	10:55	11:05	11:15	11:40
13:00	13:20	13:25	13:35	13:45	11:45	11:55	12:05	12:15	12:40
14:00	14:20	14:25	14:35	14:45	12:45	12:55	13:05	13:15	13:40
15:00	15:20	15:25	15:35	15:45	13:45	13:55	14:05	14:15	14:40
16:00	16:20	16:25	16:35	16:45	14:45	14:55	15:05	15:15	15:40
17:00	17:20	17:25	17:35	17:45	15:45	15:55	16:05	16:15	16:40
18:00	18:20	18:25	18:35	18:45	16:45	16:55	17:05	17:15	17:40
19:00	19:20	19:25	19:35	19:45	17:45	17:55	18:05	18:15	18:40
20:00	20:20	20:25	20:35	20:45	18:45	18:55	19:05	19:15	19:40
21:00	21:20	21:25	21:35	21:45	19:45	19:55	20:05	20:15	20:40
22:00	22:20	22:25	22:35	22:45	20:45	20:55	21:05	21:15	21:40
22:30	22:50	22:55	23:05	23:15	21:45	21:55	22:05	22:15	22:40

LARUNBAT GAUTAN

00:00	>>	00:25	00:35	00:45
01:00	>>	01:25	01:35	01:45
02:00	>>	02:25	02:35	02:45
04:00	>>	04:25	04:35	04:45
05:00	>>	05:25	05:35	05:45
06:00	>>	06:25	06:35	06:45

LARUNBAT GAUTAN

23:15	23:25	23:35	>>	00:00
00:15	00:25	00:35	>>	01:00
01:15	01:25	01:35	>>	02:00
02:15	02:25	02:35	>>	03:00
03:15	03:25	03:35	>>	04:00
04:15	04:25	04:35	>>	05:00
05:15	05:25	05:35	>>	06:00

00:00 Irailaren 28ko gaueko

00:00 Irailaren 28ko gaueko

00:00 Irailaren 28ko gaueko

Zarautz	Orre	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orre	Zarautz
06:00	06:15	06:20	06:30	06:40	06:50	07:00	07:10
06:30	06:45	06:50	07:00	07:10	07:20	07:30	07:40
07:00	07:15	07:20	07:30	07:40	07:50	08:00	08:10
07:30	07:45	07:50	08:00	08:10	08:20	08:30	08:40
08:00	08:15	08:20	08:30	08:40	08:50	09:00	09:10
08:30	08:45	08:50	09:00	09:10	09:20	09:30	09:40
09:00	09:15	09:20	09:30	09:40	09:50	10:00	10:10
10:00	10:15	10:20	10:30	10:40	10:50	11:00	11:10
11:00	11:15	11:20	11:30	11:40	11:50	12:00	12:10
12:00	12:15	12:20	12:30	12:40	12:50	13:00	13:10
12:30	12:45	12:50	13:00	13:10	13:20	13:30	13:40
13:00	13:15	13:20	13:30	13:40	13:50	14:00	14:10
13:30	13:45	13:50	14:00	14:10	14:20	14:30	14:40
14:00	14:15	14:20	14:30	14:40	14:50	15:00	15:10
14:30	14:45	14:50	15:00	15:10	15:20	15:30	15:40
15:00	15:15	15:20	15:30	15:40	15:50	16:00	16:10
15:30	15:45	15:50	16:00	16:10	16:20	16:30	16:40
16:00	16:15	16:20	16:30	16:40	16:50	17:00	17:10
16:30	16:45	16:50	17:00	17:10	17:20	17:30	17:40
17:00	17:15	17:20	17:30	17:40	17:50	18:00	18:10
17:30	17:45	17:50	18:00	18:10	18:20	18:30	18:40
18:00	18:15	18:20	18:30	18:40	18:50	19:00	19:10
18:30	18:45	18:50	19:00	19:10	19:20	19:30	19:40
19:00	19:15	19:20	19:30	19:40	19:50	20:00	20:10
19:30	19:45	19:50	20:00	20:10	20:20	20:30	20:40
20:00	20:15	20:20	20:30	20:40	20:50	21:00	21:10
21:00	21:15	21:20	21:30	21:40	21:50	22:00	22:10
22:00	22:15	22:20	22:30	22:40	22:50	23:00	23:10
22:30	22:45	22:50	23:00	23:10	23:20	23:30	23:40

■ Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN ■ Astelehenetik Igandera eta JAIEAN
 (R) Irailaren 28ko gaueko 00:00/01:00/02:00

Berezaren erretorika bategia 902 54 32 10 www.euskotren.es eifflante@euskotren.es

Eguneko goardiako farmaziak

Irailak 27, osteguna
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Irailak 28, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 29, larunbata
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Irailak 30, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

Urriak 1, astelehena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urriak 2, asteartea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Urriak 3, asteazkena
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

Urriak 4, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urriak 5, ostirala
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Urriak 6, larunbata
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

Urriak 7, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
J. Etxebeite Farmazia
Elkano 2 kalea, Hernani 943 55 20 87
(gaueko guardia 22:00etatik 09:00ak arte)

2007ko egutegia noaua.com webgunean

Zubieta-Donostia
TST autobusak

ASTEGUNETAN

Zubieta-Donostia

7:55* / 9:30(T) / 13:15(T)
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)

7:15* / 9:00 / 12:45(T)
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN

Zubieta-Donostia

8:15(T) / 12:45
15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)

12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN

Zubieta-Donostia

11:25(T) / 13:30(T)
15:30(T) / 21:35 (T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)

11:00(T) / 13:00(T)
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da

*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

Tren Orduetgia

Agenda !

Irailak 26, asteazkena

UEMAri buruzko hitzaldia, 19:30ean Sutegin. Antolatzailea: Aitzaga elkarte.

Irailak 27 / Irailak 30

Garagardo Azoka frontoian. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Antolatzailea: Usurbil FT.

Irailak 28, ostirala

"Gu ta gutarrak", bertso ikuskizuna, 22:30ean Sutegin. Sarrerak NOAUA!n eta Txirristan salgai.

Irailak 29, larunbata

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa: kanporaketa faseko saioa. Arratsaldeko 18:00etan. Bertsolariak: Felix Zubia, Unai Muñoa, Karmele Mitxelena, Iñaki Petxarroman, Arkaitz Oiartzabal, Iñigo Gorostarzu.

Erakusketa Sutegin

"Euskararen egoera Euskal Herrian", irailaren 24tik 29ra, Sutegiko erakusketa aretoan. Ordutegia: astean zehar, 18:30-20:30. Asteburuan: 11:00-13:00. Antolatzailea: Aitzaga.

Tren eta bus ordutegi gehiago eskuragai

Aurreko Astean NOAUA!rekin banatu genuen ordutegiak arrakasta handia izan du. Patrikan eramateko moduko ordutegi honek, EuskoTrenak dituen autobus eta tren zerbitzu ordutegiak jasotzen ditu. Baita Zubieta eta hiriburua lotzen dituen TSST autobusen ordutegia ere.

Ale gehiago eskuragarri honako leku hauetan: NOAUA!n, udaletxean, Sutegiko liburutegian, kiroldegian, Aliproxen.



Oihana Lizasoren zain

Azken orduko atzerapenik ez Abada, ostiral goizean askatuko dute Oihana Lizaso. Galizako A Lama espetxetik aterako da eta iluntzeko 21:00etan lehen ongi etorria egingo zaio Oxtapen. Handik Aitzaga elkartera joko dute. Itxita jarraitzen duenez, Aitzagaren atarian ipinita egongo den argazkia kendu beharko du Oihana Lizasok. Eta bukatzeko, Txiriboga aurrean lunch modukoa egingo da. Omenaldia eta herri afaria, hala ere, datorren astean egingo zaio. Urriaren 6an larunbata, frontoian.

2002ko irailaren 30ean atxilotu zituzten Jokin Errasti eta Oihana Lizaso. Urriaren 5ean, abokatuak atxilotuak bisitatzeko aukera izan zuen eta bi usurbildarrek torturak jasan zituztela adierazi zioten abokatuari. Soto Del Real espetxean eraman zituzten baina azken urteak Galizako A Laman egin dituzte.

Zigor osoa bete eta gero atera da kalera Oihana. Jokin Errastik, ordea,



OSTIRAL GOIZEAN GALIZATIK ATERA ETA ILUNTZERAKO ETXEAN ESPERO DUTE.

zigor handiagoa jaso zuen eta espetxean jarraitu beharko du oraindik.

Presoen aldeko elkarretaratzea

Hilabeteko azken ostiraleko hitzorduarekin bat egingo du Oihana Lizasori egingo zaion ongi etorriak. Ohi bezala, frontoiaren atzean izango da euskal presoen aldeko elkarretaratzea, iluntzeko 20:00etatik aurrera. Gauzak ondo bidean, elkarretaratzean bildutakoak Oxtapera hurbilduko dira gero.

KzGunea, urrian goizez irekia

Urrian goizez zabalduko dute KzGunea: 9:00etatik 13:00era, astelehenetik ostiralera.

Urriaren 1, 9, 17, 26 eta 29an finkatu dituzte IT Txartela lortzeko azterketa egunak. Lehen bi aukerak, 11:00-13:00 artean; gainerakoak, 9:00-11:00 artean. Bestalde, bigarren hamabostaldian, urriaren 15etik 26ra, euskaraz Internet KzGunea ikastaroa egiteko aukera izango da.

Horrekin batera, hilabete osoan zehar mintegi sorta zabala eskainiko da. Liburuak edota etxebizitzak bilatu,



sareko egunkariak ezagutu, posta elektronikoa nola erabili, edota irudi digitalak zer modutan tratatu irakatsiko da lehen hamabostaldian.

Informazio gehiago: KzGunea, Kale Nagusia, 37 behe. Tf: 943 36 14 12.

Begiralea behar da Aginagako ludotekan

Aginagako Antxomolantxa ludotekarako begirale bat behar da, larunbat goizetan lanean aritzeko.

Curriculumak urriaren 5a baino lehenago aurkeztu behar dira bertan

dagoen buzoian edo e-mail honetan: antxomolantxa@euskalherria.org.

Edozein zalantza argitzeko, deitu honako telefono zenbakira: 650 692 458.

ETXEBIZITZA

- Pisua alokatu nahiko genuke. Ama-alabara. Alokatzeko pisurik baduzu dei ieza-guzu: 616 59 11 99.
- Etxe bat salgai Nagusia kalean, 90 metro karratu, 3 logela, 2 komun, egongela handia, sukaldea, 9 metro karratuko ganbara, dena amueblatuta. 55.000.000pta. 625 702 539.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea traste-roarekin. Garajea aukeran. 685731792
- Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil Usurbilen. 687 650 066 (Maria).

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko.
- Estrenatu gabeko Aprilia Scoter SR 50 motoa saltzen dut. 649 356 081.
- Garaje itxi bat alokatzen dut Artzabalen. 647 120 253.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Emakume euskalduna behar da Orion, tren geltoki ondoan etxea garbitu eta haurrak zaintzeko. 615 723 755.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. Irailetik aurrera hasteko. 627278907.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685 757 962.
- Urte osoz, astebukaeratan lan egiteko zerbitzari baten bila gabilta. 943366710.

Lan-eskaerak

- Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Goizez edo arratsaldez lan egiteko prest. Deitu: 679 79 61 01.
- Emakume euskaldun bat eskaintzen da, egunero lauzpabost ordu lan egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 687348223.
- Fisikako ikaslea, uda honetan matematika eta fisikako klaseak emateko prest. 943 37 12 77 / 685 772 602 (Nerea).
- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 677343326
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Telefono zenbakia: 620 646 769.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Irailaren 17an betaurreko graduatuak galdu genituen. Norbaitek aurkitu baditu, deitu dezala honako telefono zenbaki honetara: 650 947 142.
- Txakur-kumeak oparitzen ditugu, hiru hilabetekoak. 943 36 33 06.
- Pottoka salgai, kalifikatua eta subentzioa jasotzen ari dena. 626 220925.
- Egurrezko aukiak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Salgai bixkientzako auki bat, Red Castle markakoa, osagarri guztiekin: burbuja, zakua... 943 36 07 54 (Ana).
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Añamendi enziklopediaren 80 tomo dauzkat saltzeko prezio oso onean. 635733984.
- Benelli repetidora salgai 600 euro. 645 735750.
- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tinta-tuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa, aurreko eserlekuak birikariak, dena hornitua, ASR... 610 431 999.
- Faema markako lau besoko kafetera bat daukat salgai. 645708191.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.
- Snow egiteko tabla bat fijasioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. 617 242 660/ apore@euskalnet.net

JAIOTZAK

Irai Mayan Crespo,
irailaren 13an.

HILDAKOAK

Jose Ignacio Larrañaga Azaldegui
Irailaren 21ean hil zen
50 urte zituela.

HILDAKOAK

Pedro Mari Maiz Lazcano
Irailaren 20an hil zen
57 urterekin.



ALKORTA AUTOZERBITZUA

Frutak Barazkiak Etxeko produktuak Izoztuak

BEHEKO KALEA, 4
Telf: 943 36 57 42

LAUKOTE

OKINDEGIA KAFETEGIA

Puntapax kalea, 16 behea (Artzabal). 943 36 09 80

Zuen publizitatea hemen

© 943 360 321
publizitatea@noaua.com

euskara

zure sekretua

zu munduaren isla zara
ez uste zu ez zarela
zarela dakigu guk
zuk ahalmena daukazu
mundua edertuko duzu

usurbil

ETUMETA EUSKALTEGIA

Kale Nagusia, 45 behe. 20170 USURBIL

943 37 20 01

Udalaren diru laguntzaz

PLAZA MUGATUAK

www.aek.org

902 36 22 94

The logo for Aek (Asociación Euzkoetarra) is written in a stylized, cursive brown font.



ofizioen gida



Gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321 • publizitatea@noaia.com